

## Ikasketa amaierako proiektu onerari sarria Telekomunikazioetan.

2009/10/16

Euskal Herriko Telekomunikazio Ingeniarien Elkarteak, Peio Onaindiari, Mondragon Unibertsitatean Telekomunikazioetan Ingeniaritza amaitu duen ikasleari, sarria eman dio ikasketa amaierako proiekturik onena aurkeztu duelako.

Peio Onaindiak atzerrian egin du ikasketa amaierako proiektua, ARTILIUM ([www.artilium.com](http://www.artilium.com)) enpresan hain zuzen. Enpresa honek 2.0 aplikazioak garatzen ditu sakelako telefonoetan.

Peiok, sare mugikor baten barruan enpresa jabe den GPS teknologia propio bat erabiliz, pertsona eta ahaideak aurkitzeko aplikazio bat garatu du. Aplikazio horrekin, uneoro kontaktuan egon eta non dauden jakitea nahi duten pertsonak aplikazio eta tresna mugikorren bidez, erakunde bateko pertsonak edo familiak esate baterako, online egon daitezke beti.

Proiektua amaitu ondoren, Peiok Artilium-en dihardu aplikazio horiek garatzen.

